

KANALAK

Komunikazio kanalak:

Bezeroekin harremanetan jartzeko erabiliko ditugu komunikazio-kanalak hauek izango dira:

- **Denda fisikoak:** 3 denda zabalduko ditugu euskadin, hauek erosi eta mantentzeko aurrez eskaturiko mailegutik hartuko dugu dirua.
- **Internet:** on-line denda bat izango dugu munduko edozein tokitatik erosi ahal izateko, horrela bezero gehiago izateko aukera dugu.

Banaketa kanalak:

Gure produktua bezeroei iristeko beste enpresa batzuk kontratatuko ditugu, honek kostua suposatuko du, baina dirurik ez gastatzeko, produktua bidaltzeak balio duena bezeroei kobratuko zaie. Naiz eta bezeroek ordaindu gastu horiek ahalik eta enpresa merkeena aurkitzen saiatuko gara, bestela oso urruti bizi direnak ez lukete erosiko prezioa asko igoko litzatekeelako.



Kanal propio eta elkartutako kanalak erabiliko ditugu.

Kanal propioa: denda fisikoak eta on-line denda

Elkartutako kanala: amazon

Bezeroak publizitatearen bidez erakarriko ditugu. Honen bitartez, gure produktua erostera bultzatuko ditugu. Jada gure produktua erostea lortzen dugunean, ea gustoko izan duten jakiteko, inkesta bat egingo diegu gure webgunean eta horrela gure produktua hobetzen ahaleginduko gara.